

Bost hilabete Dornbirn-en

Hurrengo idazkiaren bidez Vorarlberg-en bere truke lauhilekoa egiten interesa duten pertsonei nire esperientzia deskribatu nahiko nieke.

Nire egonaldia Austrian 2015-eko Abuztuaren 20-an hasi egin zen. Bilbotik Zürich-era hegan egin ondoren, Dornbirn-eraino trenez iritzi nintzen. Bertan Fachhochschule Vorarlberg-eko arduradun bat nire zain zegoen eta hiriko Erasmus etxeraino eraman ninduen.

Bizitza Erasmus etxean

Bertan nire "roommate"-a izango zen Jan Gustafson estatubatuarra ezagutu nuen. Biok komuna eta sukaldea elkarbanatzen genuen eta bakoitzak bere logela zeukan. Dena nahiko berria zirudien eta bertan oso gustura bizi izan naiz. Sukaldea gutxi gora behera ondo ornituta aurkitu nuen, lauhileko oso batean zehar sukaldatzeko behar daitekeen ekipamendu guztiekin behintzat. Dena den ezin izango duzu etxean bezain ondo sukaldatu baina bizirauteko emango dizu. Erasmus etxearen inguruan bakarrik bi arazo topatu egin ditut, alde batetik ez dago wifi-rik, bakarrik ordenagailua konektatzeko LAN kable bat dago eskuragarri logela bakoitzean, eta bestetik birziklatzerako orduan arazo asko eduki genituen hau Erasmus etxeako bizilagun guztiek batera egin behar genuelako.

Astebururo bi edo hiru festa antolatzen ziren etxean. Truke ikasleentzako topalekua bilakatu zen gure etxea eta. Gainera Dornbirn-en gau bizitza animatua dago gustu guztietako jendearentzat. Nik Tiboli eta 7er tabernetara joan ohi nintzen, gehienbat bertako austriar eta alemaniar ikasleekin erlazionatzen nintzelako. Bertan izugarri handiak diren "bier"-ak edan ditzakezu punk eta rock musika entzuten. Taberna hauek Euskal Herrian aurkitu ditzakezuenen antzekoak dira. Baina zure gustuak nireekin bat ez badatoz Dornbirn-en zenbait pub eta diskoteka ezberdin ere badaude.

Unibertsitatea

Unibertsitatea Fachhochschule edo University of Applied Sciences bat denez, irakasgai guztiak ikuspuntu oso praktiko batetik antolatuta daude. Hortaz, Gasteizko EUI-n daukagun ezagutza praktikoen falta konpentsatzeko leku ezin egokiago bat izan da niretzat. Bertan garatutako irakasgaien artean Mechanical Focus Project da dudarik gabe interesgarriagoena. Plastikozko atal baten produkzio osoa beste hiru taldekideekin batera garatu egin genuen, produktuaren diseinutik fabrikaziora tarteko pauso guztiak osatuz. Nire ustez proiektu hau Mechatronik proiektua baino askoz osoagoa da ingeniarietza mekanikoko ikasleentzako. Nire taldekideekin batera, Christian (Austria), Tim (Alemania) eta Jani (Finlandia), torlojuak neurtzeko erreminta bat diseinatu, haren injekzio moldeak garatu eta fabrikatu eta produktu finala fabrikatzeko gai izan nintzen gure eskura genuen tailerrean eta unibertsitatearekin harremana duten enpresetan ere. Ikasketen ikuspuntutik egonaldi bikaina izan dudala esan dezaket dudarik gabe.

International Office-ko kideek sortu zitzaizkidan arazo guztiekin lagundu egin zidaten, eta unibertsitateko irakasleek oso ondo tratatu zidaten, ahal zuten guztian ikasle kanpotarrei bertakoak balira bezala tratatuz.

Unibertsitateko eraikuntza nagusian Mensa deritzon jantokia aurkitu daiteke, bertan merke eta

ondo jan egiten da baina austriar ordutegian 11etatik 14ra. Gainera eraikuntza honetan ere kafetegi bat dago klaseen ostean lagunekin erlaxatzeko ezin hobea. Bertan Dornbirn-eko taberna guztietan hartu dezakezun “bier” handiak ere edan ditzakezu.

Oso komenigarria da unibertsitatean bertan eskaintzen dituzten alemanera klaseak artzea. Gero bueltan hizkuntza ikasten jarraitzeko oinarri hobeezina bai dira. Klase guztiak ingelesez dira eta arazorik ez edukitzeko ahalik eta ingeles maila altuena izan beharko duzu.

Bertako ikasleekin erlazionatu nahi bazara OHL-k, austriar ikasle batzordeak, antolatzen dituen ekintzetan parte hartzea aukera hoberena da.

Mendiak, bidaiak eta bertako janaria

Ni mendizale amorratua naizenez Vorarlberg-eko ahalik eta mendi gehien igotzen saiatu nintzen. Hau oso erraza izan da hango mendi guztien bideak oso ondo markatuta daudelako. Igotako politenen artean Braunarlspitze eta Schesaplana izendatuko nituzke. Baina bertara joan ezkerro derrigorrezkoa da austriar Alpeen paradisia ezagutzea.

Bestalde zenbait bidai egin ditut inguruko hirietara. Niretzat politenak Innsbruck (Tirol), Bregenz (Vorarlberg) eta Lindau (Bavaria) izanda. Nire bidaietan beti bertako janariak dastatu ditut. Austriar postreak inoiz jan ditudan hoberenak dira eta batekin geratu behar baldin banaiz kalabaza tartarekin geldituko nintzake. Bestalde zonaldeko janaririk dastagarrienak Bavaria-n aurkitu ditzakezu, saltxitxak alde batera utziz noski, bertako arrain errezetak aurkikuntza gozagarri bat izan ziren niretzat.

Nire bidai guztien garraiorako OBB austriar trenbide sarearen Vorarlberg-erako gazte txartela erosi nuen. Horrekin Vorarlberg-eko estatu osoan zehar daukaten garraio publikoko sarean zehar dohain mugi zaitezke.

Orokorrean oso pozik bizi izan naiz Dornbirn-en eta Erasmus esperientzia betea izan dut Austrian. Bertako mendietara oporretan bueltatzeko irrikitan nago.